



4. AKTA

2004ko apirilaren 23an ospatutako **TOKIKO GOBERNUAREN JUNTA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: Bi mila eta lauko apirilaren ogeitahiruan.

ETORRITAKOAK:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j.
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian bildu dira Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatearen presidentzian goian aipatu zinegotziak Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko Idazkari jauna bertan delarik, Tokiko Gobernuaren Juntaren batzarraldia egiteko horretarako egin deialdia dela eta.

Lehendakaritzak konstataturik Tokiko Gobernuaren Junta legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 13:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 3.a, 2004ko martxoaren 30ekoa, irakurri eta ontzat ematea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Tokiko Gobernuaren Juntak erabaki du ontzat ematea bere osoan eta dagokion Akta-liburuan transkribatzea.

2.- 4 zka. daraman kontu-fakturen erlazioa.

Tokiko Gobernuaren Juntak erabaki du ontzat ematea 4. zka. daraman kontu-fakturen erlazioa, EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA ETA HIRUREHUN ETA BERROGEITASEI EURO ETA HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMOKOA (157.346,69 eurokoa).



3.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntzetan aldaketak.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko apirilaren 14an aurkeztutako proposamena 1/04 proposamenari dagokion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Modifikazioei buruzkoa, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen den onuradunaren 1/04 proposamenari dagokion Gizarte Larrialdiaren Laguntza Ekonomikoak modifikatzea bertan azaltzen diren zioak direla eta, bertan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inporteak Gizarte Larrialdiaren partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzaren Sailari ematea.

4.- 9. ziurtagiria (azkena): “Trintxerpeko Azkuene, Ulia eta Erretereria Hiri Eremuari dagokion urbanizazioko” obraren Segurtasun eta Osasun eta Kalitate Kontrolari buruzkoa.

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 9. (azkena) (Segurtasuna eta Osasuna gehi Kontrola).

Obra: “Azkuene, Ulia, Erretereria-Trintxerpe Eremua urbanizatzea”.

Obra zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azoitia j. (Udal Arkitektoa) eta Jose Maria Irazusta Garikano j. (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: SEI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO (6.543,52 euro).

D-728/03 Disposamenduaren kargura.

5.- 10. ziurtagiria (azkena): Trintxerpe Azkuene, Ulia eta Erretereria kaleetako hiritartze-lanak.

Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:



Zka.: 10 (azkena).

Obra: "Azkuene, Ulia eta Errenteria-Trintxerpe eremua urbanizatzea".

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: LAUROGEITA HAMABI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (92.243,07 Euro)

Indarreango udal aurrekontuko D-370/03 Disposamenduaren kargura.

6.- Ondare erantzukizunari buruzko hainbat erreklamazio.

A) Lucia Cantabrana Manzanos andreak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

Lucia Cantabrana Manzanos andreak ondare erantzukizuneko eskaera aurkeztu dio Udalari, 2003ko maiatzaren 28an erori egin zelako Torreatzen zegoen sakangune batean estropozu eginda, Ondartxoko Pasealekura daraman galtzadan. Udaltzaingoak egindako parte eta Udal honetako Zerbitzu Sailak egindako txostena aztertutik, Pasaiako Gobernu Batzarrak aho batez

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Ezestea LUCIA CANTABRANA MANZANOS andreak egindako erreklamazioa ondoko arrazoiengatik:

- Ez dago inolako kausazko loturarik; izan ere, gune hori Portuko Jabari Publikokoa da, obra Portuko Agintaritzak egin du, eta beraz ez dagokio Udal honi.
- Udal honek soil-soilik hondakinak biltzeko zerbitzua egiten du gune horretan, eta hor ez du mantentze-lanik ere egiten.
- Nolanahi ere, argazkian ikusten da badagoela oinezkoentzako espalo bat ibilgailuentzako sakangune edo oztopoa gainditzen duena, eta bestalde oso garbi ikusten dena ezbeharra goizeko 11,30etan gertatu zenez gero; eta, beraz, kasu horretan ere ez dago kausazko loturarik erorikoaren eta sakangunearen artean.



BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea beronen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri emanez.

B) Felipe Mancisidor Lujambio jaunak egindako ondare-erantzukizuneko eskaera.

FELIPE MANCISIDOR LUJAMBIO jaunak ondare erantzukizuneko eskaera aurkeztu dio Udalari, 2003ko abenduaren 4an, Pasai Donibane Kaleko 70. zenbakian dagoen Jubilatu Etxeko Ilepaindegira igotzeko eskaileretan erori zelako. Hori dela eta bere betaurrekoak hautsi zitzaizkion eta 240 euroko kalte-ordaina eskatu du.

Udalak frogatutzat jotzen du gertatutakoa, espedientean agertzen den lekukotasuna kontuan hartuta eta kaltetutako betaurrekoak espedientean bertan direlako.

Bestalde, ez da egokitzen jotzen kalte-ordainaren zenbatekoa. Izan ere, betaurrekoak ez ziren berriak. Honekin batera ulertzen da istripuan badagoela erreklamazioa egin duenaren ardura ere, lekua ederki ezagutu arren ez zuelako egokitu bere jarrera eskaileren egoerara. Horregatik guztiatik zuzentzat jotzen da kalte-ordainaren %50 ordaintzea.

Hori dela eta, Pasaiako Gobernu Batzarrak aho batez

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Zati batean BAIESTEA Felipe Mancisidor Lujambio jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaera eta betaurreko berrien fakturaren %50a (120 Euro) ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea beronen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri emanez.

- Gaizerrendatik at eta bertan sartzea bertako zinegotziek aho batez aurrez berronetsirik, hurrengo akordioak hartzen dira:

7.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei diru-laguntzak.2/04 zka. daraman proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2004ko apirilaren 19an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 40.935,56 eurokoak.



Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-447/04 Baimenduaren kontura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean amaitutzat eman da batzarraldia 13:30etan, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau andre Alkateak eta nik, Idazkari Akzidental bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.